

ELKARRIZKETA EIDER EGAÑARI

1. Biztanleriaren gorakadaren ondorioz, Zumaia hiri bat izatera iritsiko al da?

Ez, ez dut uste iritsiko denik, eta Zumaian biztanleria igoko den bezala, beste herrietan ere igotzen joango da.

2. Migrazio mugimenduek jarraituko al dute? Zergatik? Nora joango gara? Nondik etorriko dira?

Nik uste mundua dagoen bezala migrazioek egoten segituko dutela, baina gu ekonomikoki ongi bizi gara, beraz, gu ez gara mugitu beharko.

3. Herriko denda txikiek aurrera jarraituko al dute? Edo supermerkatu handietan eta online erosteko aukera gailenduko da? Dendak desagertzen badira, zerk ordezkatuko ditu?

Nik uste denda txikiek oraindik jarraituko dutela, baina supermerkatuak hobeagoak izango direla eta interneta aurrera doan bezala horrek ordeztuko duela.

4. Aurrerapen teknologikoez inguratuta egongo al gara? Hala atzera egingo dugu eta orain dela 100 urte bezala biziko gara?

Teknologiak aurrera jarraituko du eta gero eta gehiago biziko gara teknologiarekin.

5. Biztanleriak zahartzen jarraitzen badu, herrian dauden maldak eskailera mekanikoek ordezkatuko al dituzte?

Nik ez dut uste puntu horretara iritsiko garenik, baina bai gehiago egongo direla eskailera mekanikoak.

6. Kutsadura aldetik nolakoa izango da? Igo egingo al da? Edo jaitea lortuko dugu?

Kutsadurak gora jarraituko du zeren puntu batean gaude ezin duguna ezer ere egin.

7. Itsasoaren mailaren ondorioz Zumaiaren zati bat hondoratzeko arriskurik ikusten al duzu?

Nik uste momentu bat iritsiko dela Itzurun hondartza desagertu egingo dena.

8. Euskaraz hitz egiten jarraituko al da Zumaian? Edo beste hizkuntza bat gailenduko da? Zein hizkuntza?

Nik uste beti egongo dela bateren bat euskaraz hitz egingo duena, eta momentuz, jendeak jarraituko du euskaraz hitz egiten, baina gero eta gutxiago hitz egiten da.

9. Gure kultur ohiturei eutsiko al zaie Zumaian? (festak, janaria,...)

Bai beti egongo da hori Zumaian.